

"Hilerriratuko nindutela"

Euskaldunon Egunkaria, 1994-12-20: 2.

Basatikeria hutsa izan da. Hilketak guztiak dira krimenak, nola nahi emana izan dela herioa, baina multzoketa koldarrean ostikadaka beste norbait zanpatzeak badu krudeltasunaren marka gaiztoa. Ander Susaeta, ertzaina, hil ez bada ere heriotza horretatik at larriki bizirik irten denari ez zaio begietako izua ustekabeen lekoratuko! Gure herrian indarkeria dela medio egiaz hilik gertatu denik ere bada azken aldi honetan, ez denak ertzainak, eta hauen begirada zorrotzak kamustu dira herioarekin izandako trebukaldian. Ez ditugu, agian, denak erruki beraz arropatu. Badugu gehienetan gizakorrak diren aitzakiak bereizkuntzak egiteko. Egia da, bestalde, tokia ere gutxitxo ari zaigula geratzen errukirako, gorpuen erretratuak presakagi dabilta orain telebistaz, ezagutzen ez ditugun hilotzez betetzen ari baitzaigu mundua! Gure aurrekoak bizi zituzten hilak sasoi berekoak izan ohi ziran, filmetako denbora erreala!, eta errukia egiazkoa; gureak, neurri eta bitarte askotakoak dira, sarri aurreritiz beteak. Eta hemen gaur eman behar dira iritziak, bihar atzo bait daiteke, esandakoa soberan, isilik pasatakoa faltan... Zaila da gaur falta gabe hitzegitea. Baina hiltzailea errudun da, atzo bezala gaur, eta justizia ere hala bedi, ez aspaldian bezala agintera moldatua. Orduan ez dugu, agintekoa bada, gehiago justizian sinistuko. Fedea egiaz edukitzea gauza ederra da; duenak, gorde dezala.